

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak biktimei solidaritatea erakutsi die Terrorismoaren Biktimen Europako Egunean

*Foru Gobernuaren kontseilariak Nafarroako Jauregiaren parean egin den kontzentrazioan parte hartu dute*

Astelehena, 2019.eko martxoak 11

Nafarroako Gobernuak gaur goizean (martxoak 11) kontzentrazio isila egin du, Terrorismoaren Biktimen Europako Egunarekin bat eginez. Nafarroako Jauregiaren fatxadaren parean, Iruñeko Carlos III Etorbideko 2 zenbakian, Manu Ayerdi lehendakariordea eta Mikel Aranburu, Ana Ollo, Fernando Domínguez eta Ana Herrera kontseilariak bildu dira.



Nafarroako Gobernuaren kontzentrazioa Terrorismoaren Biktimen Europako Egunean.

Nafarroako beste erakunde batzuetako arduradunak ere han izan dira, beste batzuen artean Ainhoa Aznárez Nafarroako Parlamentuaren lehendakaria eta Nafarroako Gobernuaren talde parlamentario ezberdinetako ordezkariak eta zuzendari nagusiak.

Kontzentrazioaren amaieran, Ana Ollok Herritar eta Erakunde Harremanetarako kontseilariak komunikabideen aurrean duela 15 urte Madrilén gertatutako atentatu terrorista gogoratu du, Europako handiena, eta esan du “Nafarroako Gobernuak solidaritatea erakusten diela terrorismoko biktima guztiei, bidegabeko, legez kontrako eta ezin justifikatuzko indarkeria jasan duten horiei. Nafarroak ere bizitu izan du indarkeria mota hori, alegia, indarkeria terrorista”. Ildo horretatik, erantsi du “erabat gaitzesten eta bazterten dituela bai terrorismoa bai edozein ideia edo proiektu defendatzeko indarkeria, eta, dudarik gabe, biktimen egia, justizia eta ordainerako eskubidea defendatzen dituela”.

Amaitzeko, erantsi du “gizartea era baketsuan eraikitzen jarraitu behar dugula, edozein ideia bakearen eta errespetuaren kultura baten markoan legez partekatua eta defendatua izateko, Nafarroakoa bezalako gizarte plural eta anitz baten barruan”.